

# Bokatiboa eta gaitasun prosodikoa: lehen urratsak

Iñaki Gaminde, Aintzane Etxebarria, Urtza Garai eta Asier Romero  
UPV-EHU: Hizkuntza eta Didaktika Saila

Lan honetan euskaraz bokatiboen erabileraren gaineko lehen azterketa aurkezten dugu. Bokatiboa oso gutxi ikertu den fenomeno linguistikoa da, eta oso idiosinkratikoa nahiz konplexua izan daiteke. Horregatik, lan honen hasieran, alde batetik, bokatiboen erabilera kokatzen dugun gaitasun prosodikoaren gaineko sarrera aurkezten dugu; beste alde batetik, bokatiboen izaera bera eztabaidatzen dugu. Bokatiboak prosodikoki eta sintaktikoki independentetzat jo izan dira eta eskuarki onartzen da independentzia prosodikoa euren independentzia sintaktikoaren ondorioa dela. Lanaren amaieran aurkezten diren emaitzak 12 hiztunen datuen azterketa fonologikoa eta fonetikoa eginda lortu dira.

GAKO-HITZAK: Bokatiboa · Gaitasun prosodikoa · Prosodia.

## Meanings, index-signs and performativity on a christmas ritual

This paper presents a preliminary analysis of the use of the vocative in Basque. The vocative is an unexplored linguistic phenomenon that can be highly idiosyncratic and complex. Therefore, in the first part of this paper we present, on the one hand, a theoretical introduction to the prosodic competence where we frame the use of vocative and, on the other hand, we discuss its nature. Vocatives have been described as being syntactically and prosodically independent. It is commonly assumed that their prosodic independence comes from their syntactic independence. The results given at the end of the paper are based on phonological and phonetic analysis of data obtained from 12 speakers.

KEY WORDS: Vocative · Prosodic competence · Prosody.

*Jasotze-data: 2011-03-10. Onartze-data: 2011-07-26.*

## 1. Sarrera

Lan honen helburua bokatioen prosodiaren ezaugarrien gaineko lehen hurbilpena egitea da. Horretarako izen bereziak aukeratu ditugu bokatibotzat. Gai hau ezin esan dezakegu geure artean asko ikertu denik. Zilegi izan bekigu, horrenbestez, teoria apur bat egitea jardun-esparrua ahalik ondoen zedarritzeko.

Hizkuntza jakitea gaitasun komunikatiboa izatea baldin bada; alegia, norberaren hizkuntza ez den beste bat ikasten denean, gaitasun hori erdiestea baldin bada xedea, eta ber denboran onartzen badugu gaitasun hori hainbat gaitasunen interakziotik heldu dela, orduan ezin ukatuzkoa da gaitasun prosodikoa horietariko bat izan behar dena (honezaz Garay eta Etxebarria, 2010 eta Garay, 2011 ikus daitezke).

Artikulu honetan iradokiko den moduan, ahozotasunaren esparruan prosodia guztiz lotuta agertzen zaigu gaitasun linguistikoarekin, fonologiari dagokionez. Baina baita, era berean, gaitasun pragmatikoarekin ere; are gehiago, esan dezakegu ezen, ahozkoan ezin bereiz daitekeela gaitasun diskurtsibotik eta soziokulturaletik ere. 1. irudian gaitasun horien guztien arteko erlazioa irudikatzen da, ahozkoari dagokionez.



1. irudia. Gaitasunen arteko erlazioa.

Prosodia gaitasun horiekin guztiekin loturik egote horrek bultzatzen gaitu beste gaitasuntzat hartzera; izan ere, gaitasun linguistikoarekin lotuta egonik ere, beroni gainjartzen zaiolako ustea dugu; nahiz eta gaitasun linguistikoaren garapena txikia izan, zerbait entzutean prosodiaren arabera zuzen eginda egonez gero, gai izan gaitzke egokiro interpretatzeko.

Horretarako gomutara ekarri behar dugu prosodia bera zer den. Beronen gaineko definizio bakar bat aurkitzea zaila bada ere, esan dezagun arlo suprasegmentalean kokatzen dela.

Parte de la fonología dedicada al estudio de los rasgos fónicos que afectan a unidades inferiores al fonema, como las moras, o superiores a él, como las sílabas u otras secuencias de la palabra u oración (RAE, 2001).

Prosodia definitzea konplexua izaten da, baina beronen funtzioak ulertzea errazago egin dakigukeenez gero, gogora ekarriko ditugu (Fujisaki, 2004) hizketaren tasun segmentalen eta suprasegmentalen bidez hiztunak transmititzen dituen informazioak. Hauek hiru eratakoak dira: linguistikoak, paralinguistikoak eta ezlinguistikoak. Euron arteko mugak beti zehatz markatzea zaila den arren, bakoitzaren eremua irudikatzen ahaleginduko gara.

Informazio linguistikoa sinbolo diskretu eta arau multzotzat definitzen da. Berau hiztunaren gaitasun linguistikoaren partetzat hartu behar da; gramatikaren osagaiei bagagozkie, arau fonologikoen artean kokatzen da eta azentuarekin, tonuarekin eta intonazioarekin zerikusia dauka. Intonazioaren arauak bere baitan biltzen direnez gero, sintaxiarekin erlazionatuta dago, esaldien egitura, foko mota eta abarren berri ematen ezinbesteko elementutzat jo behar da. Gaitasun diskurtsiboarekin erlazionatzen da; izan ere, testu osoaren egitura gobernatzen du tonu eta etenen bidez (ikus Asuaje eta lag., 2005).

Informazio paralinguistikotzat intentzioa, jarrera eta hizkera-estiloak jotzen dira; eurok arteragokoen moduan hiztunaren kontrolpean daude. Informazio paralinguistiko hauek gaitasun pragmatikoarekin guztiz lotuta agertzen dira. Intentzioen kasuan argi dago hiztunak zerbait lortu nahi duena eta helburu bat daukana, horretarako erabiltzen du hizkuntza une horretan. Jarrereri dagokienez, esan deza kegu oso lotuta agertzen direla geroxeago, gaingiroki bada ere, aipatuko dugun kortesiaren teoriarekin (Brown eta Levinson, 1978, 1987). Azkenik, hauekin batera estiloak zerikusia edukitzen du, jaulkitze-abiadarekin, edo berbaldiari eman nahi zaion erregistroarekin. *Continuum* batean jarrita, erregistro informaletatik arrandi-tsuenetara joan gintezke.

Informazio ez-linguistikoa adina, generoa, izaera, egoera fisikoa eta emozionala moduko faktoreei dagokie; faktoreok ez daude zuzenki lotuta hizkeraren eduki linguistikoekin eta paralinguistikoekin, hiztunak ez ditu kontrolatzen, nahiz imita ditzakeen.

Hiztunaren ezaugarri hauek soinuaren tasunetan eragiten dute eta bariazio prosodikoaren eragileak dira. Era berean, bariazio prosodikoa erabiltzen dugu hiztunaren ezaugarriez inferentziak egiteko, iritziak sortzeko eta baita ezagutzeko ere.

Adina eta generoa oraingoz bazter utzita (ikus Gaminde, 2010), egoera fisikoari dagokionez, hiztunaren egoera horren berri ematen duten ahots tasunetan mintzaeraren alterazioak dauzkagu. Azterketari oratzean, bereizketa txiki bat egin beharko genuke; alterazio batzuk hiztunaren hizketa-ohiturek eraginekoak dira eta beste batzuk lengoaiaren patologien eremuan kokatzen dira.


Lehenengoen artean jardun profesionalak eraginekoak dauzkagu (irakasleen, esatarien, kantarien, eta abarren jardunak), ekandu oker horiek euron hizketetan islatzen dira eta patologia bihur daitezke. Bizimoduak eraginekoak ere baditugu (erretzaileak, dietak eraginekoak, etab.). Bigarren multzoan tratamendua behar dutenak geneuzkake.

Arlo hau oso zabala da eta loturak eduki ditzake beste hainbat diziplinarekin; hala nola, hizkerari eragiten dioten patologien ondorioz, errehabilitazio-teknikekin, besteak beste. Edozelan ere, argi adierazi den moduan, arazo batzuetan prosodiaren alterazioak izaten dira nabarmenenak, asperger sindromean adibidez (Rattazzi, 2009):

Prosodia precaria: presentan rangos de entonación limitados, que muchas veces no son coherentes con el funcionamiento o la intención comunicativa de la emisión. El habla puede ser poco fluida o tener una velocidad aumentada, y la modulación del volumen suele estar deficitaria, presentando generalmente una elevada intensidad.

Gaitasun pragmatikoa hitzunen eta komunikazioa gauzatzen den testuinguru sozialaren arteko erlaziotzat jo izan da. Gaitasun pragmatikoa, horrenbestez, hizkuntza zerbaitetarako edo funtzioaren bat betetzeko erabiltzen jakitean datza. Era berean, gauza bat esateko erarik egokiena aukeratzen jakitea ere barnean biltzen du. Esker onekoa izateko, ironikoa izateko, txantxak egiteko, kortesia adierazteko, eta abarreko funtzioak biltzen ditu.

Bokatiboek islatzen dituzten erlazio pragmatikoak ondo ulertzeko, antzeko ereduak topa ditzakegu pragmatikaren barnean oso landua izan den kortesiaren eremuan, Brown eta Levinsonen euren proposamena egin zutenetik (1978, 1987). Autore horien arabera, kortesia era desberdinak testuinguru-faktoreen menpe agertzen dira. Faktore horietariko batzuk dira botere-erlazioak, distantzia soziala eta hitzunek egiten dituzten inposaketak. Euren oinarrian irudiaren alde negatiboa eta positiboa jartzen dira (Escandell, 1993: 175). Irudiaren alde biok gurarizat tratatzen dira. Gure lan honetarako eta Sichel-Bazin eta laguntzaileei (2010) eta Escandelli (1993) jarraikirik erabiliko ditugun faktoreak, hauek dira: konfiantza-maila, boterea, distantzia soziala, inposaketa-maila eta ekimena, hau da, bokatiboen bigarren deiarri dagokiona (faktoreen konbinazioa, ekimena izan ezik, 2. irudian islatzen da).



**2. irudia. Bokatiboak egitean konbinatzen diren faktoreak (Sichel-Bazin eta lagunak, 2010).**

Gure lan honen xedea ez da konbinazio guztietara hedatzea; hemen aukeratu ditugun egoera komunikatiboetan lekukoek bokatiboen prosodia nola gauzatzen duten aztertu nahi izan dugu, 2. irudiko faktore horietariko batzuen konbinazioak gogoan erabilia.

Bokatiboen izaera eta funtzioak ikusi aurretik, ohartarazi nahi izango genuke ezen, goiko faktoreekin batera jarrerak eta emozioak ere nahastu egiten direla. Literatura linguistikoan jarrerak eta emozioak sarritan bereizten ez diren arren, guk zertan bereizten ditugun adierazi behar dugu. Emozioek erabiltzailearen egoeraren berri ematen dute; nahiz eta ezinbestekoa ez den berri hori inori ematea, gerta daiteke igorleak ezin kontrolatzea emozioaren adierazpidea. Jarreraren kasuan, aldiz, igorleak adierazpidea kontrolatu eta adierazi nahi izaten dio beren-beregi beste inori, hots, igorlearen eta hartzailearen arteko interakzioa egon behar da

derrigor. Mintzakideen arteko interakzio hori da, hain zuzen, bereizgarri nagusia. Saillkapenerako Wichmannek 2002an egin zuena ikus daiteke 3. irudian:

Expressive intonation reflects ...	and ...	Attitudinal intonation reflects ...
emotion	propositional attitude Opinion, belief, knowledge about a person or issue	speaker behaviour Intended and/or perceived in a given context
He is (feeling). <i>happy</i> <i>angry</i> <i>sad...</i>	I am <i>critical</i> <i>impressed</i> <i>disapproving...</i>	You are being <i>condescending</i> <i>friendly</i> <i>rude...</i>

### 3. irudia. Wichmannen sailkapena emozioak eta jarrerak bereiziz (2002).

Bokatiboa testuan hartzailea egotearen seinalerik garrantzitsuenetarikotzat jotzen da eta igorlearen ikuspuntu diskurtsiboa adierazteko errekurtsioetariko bat da. Testu-ainguratze elementua denez gero, pertsona-deiktikoekin eta deiktiko sozialekin erlazionatzen da, euren funtziorik behinena, igorlearen eta hartzailearen arteko erlazioa (sozialak, afektiboa, etab.) agerian jartzea baita.

Bokatiboaren izaera ikuspuntu pragmatikotik behatu behar da lehen-lehenik, eta gero ikuspuntu fonologikotik eta semantikotik (Cuenca, 2004):

La naturalesa del vocatiu s'ha d'observar des d'un punt de vista pragmàtic, en primer lloc, i fonològic i sintàctic, en segon lloc. Com indica Payrató (2002: 1131), el terme llatí vocatioonis, del qual deriva el català vocatiu, vol dir 'acció de cridar o apel.lar'. Així doncs, el vocatiu es vincula a l'acció discursiva de cridar el receptor i té, per tant, un valor apel.latiu, en termes de Bühler (1934), o conatiu, en termes de Jakobson (1960). L'apel.lació al receptor és pura o prototípica quan no s'ha establert la comunicació i cridant l'interlocutor es vol captar la seva atenció (1) o assegurar-se que s'està parlant amb el receptor buscat, com s'esdevé en el cas de les converses telefòniques (2) o en un xat (3).

Bokatiboaren funtzioa kortesiarekin eta testu-egiturarekin erlazionatzen da. Bestalde, fonologikoki hizkuntza askotan intonazio bereziarekin deskribatu da (Gussenhoven, 2005; Cabré eta Vanrell, 2008; Sichel-Bazin eta lag., 2010). Intonazio berezi hori harridurazkoen intonazioarekin parekatzen izan da, eta aparteko intonazio-unitatetzat jotzen da sintaktikoki ere aposizio-sintagma osatzen du eta. Azken hau izan da euskaraz landu den ikuspuntu bakarrenetarikoa, bokati-boen gainean zerbait landu denean; izan ere, bokati-bo batzuek ez dute artikulua hartzen (Txillardegi, 1978: 167; Agirre, 1991: 679; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 121, 180). Bokati-boak izen arruntak zein bereziak izan daitezkeen arren, izen berezia erabiltzea deitze-funtziorako prototipikotzat jotzen da.

Laburbilduz, bokatiboak ikertzeko interesa nabarmendu gura dugu Cuencari (2004) jarraikirik eta bere hitzak gure eginik:

En síntesi, els vocatius presenten un gran interès des del punt de vista de l'anàlisi pragmàtica i manifesten una relació entre els aspectes formals (tipus d'elements usats, posició, combinació, entonació) i els d'ús, com a elements que s'associen amb la cortesia i la imatge, d'una part, i amb l'estructura textual, de l'altra.

Bokatiboen analisi fonologikorako dagokion azpiatalean laburki deskribatuko dugun eredu metriko-autosegmentala erabiliko dugu. Era berean, azterketa fonetikorako erabili ditugun irizpideak datuen azterketaren atalaren bigarren azpiatalean aurkeztuko ditugu.

Lana aurrerantzean hiru zati nagusitan banatuta aurkeztzen dugu. Bigarren atalean aztertuko dugun corpusaren ezaugarriak eta berori jasotzeko metodologia azalduko dira. Hirugarren atalean, datuak aurkeztu eta aztertu egingo ditugu. Azkenik, laugarren atalean ondorioak eta hurrengo lanetarako iradokizunak laburbilduko ditugu.

## 2. Corpora jasotzeko metodologia

Gure bokatiboen analisisia egin ahal izateko «Enara» izena aukeratu genuen. Izen horrek, hemen aztertu diren bariedade guztietan, azentua erdiko silaban dauka; bariedade batzuetan azentu lexikotzat jo daiteke berau eta beste batzuetan, ostera, arauen bidez txertatzen dena. Edonola ere, azentua silaba berean txertatzen dute lekuko guztiek.

Denetara 12 lekuko eduki ditugu, denak andrazkoak 19-26 urte bitartekoak eta unibertsitateko ikasleak (Bilboko Irakasle Eskolako ikasleak, hain zuzen ere). 8 lekuko bizkaitarrak izan dira eta 4 gipuzkoarrak. Bizkaitarren artean 4 lekukoren ama-hizkuntza gaztelania izan da; bestalde, denek burutu dute euron hezkuntza-prozesua D ereduan. Lekukoen jatorriaren arabera, ondoko hau daukagu (A taldea euskara etxean ikasi dutenek osatzen dute, eta B taldea euskara eskolan ikasi dutenek). Bestalde, A taldea beste zati bitan banatuta aurkeztuko dugu, hiztunen jatorrizko euskalkien arabera; horrela bada, A1 taldea bizkaiera egiten dutenek osatzen dute, eta A2 taldea, berriz, gipuzkera egiten dutenek.

### A taldea:

**A1:** Morga, Munitibar, Zornotza, Atxondo.

**A2:** Azkoitia, Elgoibar, Oriu, Donostia.

**B taldea:** Basauri, Getxo, Bilbo, Barakaldo.

Datuak jasotzeko lekukoei hiru egoera adierazi zitzaizkien eta egoera horien arabera deitzeko eskatzen zitzaien; lehen deia egindakoan pertsona horrek ez duela entzun eta deia errepikatzeke eskatzen zitzaien. Aukeratu ziren egoerak honako hauek izan ziren:

(a) Parketik zoaz eta urrunetik «Enara» izeneko zure lagun bat ikusten duzu, deitu (ez du entzun, deitu berriro).

(b) Zure «Enara» izeneko irakasle batekin hitz egin nahi duzu aspaldion, eskolako pasabidean ikusten duzu jende artean, deitu (ez du entzun, deitu berriro).

(c) Zeu zara irakaslea eta «Enara» izeneko neska bat berbetan dabil isildu barik, deitu (ez dizu entzun, deitu berriro).

Aurreko atalean aurkeztu ditugun faktoreen arabera, egoera bakoitzak dituen ezaugarrietan arreta jarrita, 1. taulan ikusten den bezala, (a) eta (c) egoerak elkarren ispilutzat har daitezke.

	Konfiantza	Boterea	Distantzia	Inposaketa
(a)	+	-	-	-
(b)	-	-	+	-
(c)	-	+	+	+

1. taula. Egoerak ezaugarrituta faktore pragmatikoen arabera.

Era honetara lekuko bakoitzeko 6 bokatibo jaso ziren, 138 denetara. Grabazio guztiak marantz izeneko grabagailu digital batekin egin ziren kanpo-mikrofonoa erabilita. Behin grabazioak ordenagailuan edukita, azterketa egiteko «praat» aztergailua erabili da (Boersma eta Weenink, 2009).

### 3. Datuen azterketa

Datuen azterketa egiteko lehen eta bigarren deiak bereiz emango ditugu. Aurreko atalean azaldu dugun moduan, hiru egoera aurkeztu genizkien lekukoei (a), (b) eta (c).


Datuak eta euron analisia aurkezteko era bitako azterketak egingo ditugu; alde batetik, datuen azterketa fonologikoa aurkeztuko dugu, azterketa mota honen bidez azaleko melodiak osatzeko azpian dauden tonu motak eta euron konbinazioak agerian utzi nahi ditugu; beste alde batetik, azaleko melodiak berdinak direnean, datuen azterketa fonetikoa egingo dugu esangurari dagozkion desberdintasunak zerk eragiten dituen ikertzeko.

#### 3.1. Datuen azterketa fonologikoa

Gure azterketa metriko-autosegmental deritzon marko teorikoan kokatzen da. Egia da, Hualdek (2003) esaten duen moduan, eredu hau malgua dena eta interpretazioen arabera fenomeno berberak era batera edo bestera azter daitezkeena. Hala ere, uste dugu gaur egun eredu teorikorik indartsuena eta emankorra dela.

Eredu honek Pierrehumberten lanean (1980) dauka abiapuntua, geroago hainbat eta hainbat lanetan garatuz etorri da. Ereduaren ezaugarrien gaineko laburpen onak aurki daitezke lan askotan: Hualdereanean (2003), Prietorenean (2006), Toledorenean (2007) eta Gussenhovenean (2007), esate baterako. Eredua barne-osagaiez eta tonuaz arduratzen den arren, gure lan honen helburuetarako tonuez baino ez ditugu ohar orokor batzuk egingo, osagaien arazoa oraingoz bazter uzten dugularik. Ereduan, horrenbestez, hiru tonu mota bereizten dira (Hualde, 2003, Toledo, 2007): azentu tonudunak, muga-tonuak eta sintagma-tonuak.

Azentu tonudunak silaba azentuduneari gertatzen dira, eurok azentuaren eta tonuaren arteko erlazioa adierazten digute. Azentu tonudunen artean eskuarki mota bi agertzen dira tonu bakunak eta bikunak. Notazioari gagozkiola, «\*» ikurrarekin agertzen dira, tonu bakunetan bi erabiltzen dira H\* eta L\*; honek adierazi gura du H edo L silaba azentudunarekin estekatzen direla. Bikunak H eta L tonuen arteko konbinazioak dira, notazioan H\*+L modukoak erabiltzen dira. Kasu honetan izardun tonua silaba azentuduneari hasten da eta beronen ondoan beherakada bat gertatzen dela esan gura da. Aztertu diren hizkuntzetan proposamen desberdinak egin diren arren (Sosa, 1999; Frota, 2003; Jun, 2005; Dorta, 2007), hemen Prietok (2006) proposatzen dituenak ematen ditugu adibidetzat.



4. irudia. L+H\*, H\*+L, L\*+H eta H+L\* azentu tonudunen silaba azentudunarekiko erlazioa. Prieto (2006).

Azentu tonudun bikunek printzipioz konbinazio guztiak onartzen dituzte; hala ere, orain arte egin diren lanetan oinarrituta konbinazio posibleetarik batzuk dira agertzen izan direnak (2. taula).

Tonua	Deskripzioa
H*+L	Tonu altua azentudun silaban eta baxua ondokoan
H+L*	Tonu baxua azentudun silaban eta altua aurrekoan
L+H*	Tonu altua azentudun silaban eta baxua aurrekoan
L*+H	Tonu baxua azentudun silaban eta altua ondokoan
H*+H	Tonu altua azentudun silaban eta altuagoa ondokoan

2. taula. Euskaraz deskribatu diren azentu tonudun nagusiak.

Osagaien mugetan agertzen diren tonuetan mota bi bereizten dira, intonazio-sintagmaren mugetan dauden tonuak, aurrerantzean muga-tonuak, eta bitarteko sintagmetan agertzen direnak, aurrerantzean sintagma-tonuak.

Muga-tonuak baxuak (L) eta altuak (H) izan daitezke; «%» ikurraren bidez muga adierazten da. Era horretara lau aukera daukagu, esaldiaren hasieran %L eta %H eta amaieran L% eta H%. Esaldi edo talde prosodikoaren amaieran tonu hauek azentu tonudunekin konbina daitezke.

Sintagma-tonuei dagokienez, euskararen gainean egin diren azterketetan H- da proposatu dena (Jun eta Elordieta, 1997), beronen bidez lehen silabatik




bigarrenera gertatzen den gorakada eta horren hedapena adierazten da. Iparmendebaldeko bariateteetan (Gaminde, 2007; Hualde eta Bilbao, 1992) eta Txoierriko herri batzuetan H- tonuaren ordez interpolazio fonetikoa egiten da silaba azentuduna jo arte.

Goiago esaneko moduan, bokatiboek aparteko intonazio-unitateak osatzen dituzte; beraz, zilegi izan daiteke pentsatzea beste tonu mota batzuk edo beste konbinazio batzuk ager daitezkeela. Hizkuntza erromanikoen esparruan egin diren ikerketetan (Sichel-Bazin eta lag., 2010), honako hauek izan dira topatu diren tonu-segidarik garrantzitsuenak:


- (1) L+H\* M%
- (2) L+H\* HL%
- (3) (L+) H\* L%

(1) tonu-segida aztertu zituzten hizkuntza erromaniko guztietan erabiltzen da. (2) tonu-segida katalanez eta gaztelaniaz agertzen da baina ñabardura ezberdinez erabilia. Azkenik, (3) tonu-segida okzitanieraz eta portugesez agertzen da 2. deia adierazteko batez ere (5. irudia).




**5. irudia. Hizkuntza erromanikoetarako deskribatu diren tonu-segida nagusiak (silabarik ilunena azentuduna da).**

Atal honetan azentu tonudunak eta muga-tonuak nola konbinatzen diren aztertuko dugu. Gure datuen analisisetatik azentu tonudunetan mota bi bereizten direla ondoriozta dezakegu. Alde batetik L+H\* azentu tonuduna dugu, beronek adierazten du silaba azentudunear H tonua txertatzen dela eta aurreko silaban L tonua (6. irudia). Bestetik, L\*+H azentu tonuduna dugu, honek esan nahi du silaba azentudunear L\* txertatzen dela eta hurrengo silaban gorakada bat gertatzen dela (7. irudia). Azentu tonudunetz gain, muga-tonuak dauzkagu; gure kasuan HL% (8. irudia), L % (9. irudia), M% (10. irudia) !H% (11. irudia) eta LH% (12. irudia).




**6. irudia. L+H\* azentu tonuduna (Atxondo).**

**7. irudia: L\*+H azentu tonuduna (Azkoitia).**




**8. irudia. HL% mugatonua (Barakaldo).**

**9. irudia: L% mugatonua (Elgoibar).**




**10. irudia: M% mugatonua (Getxo).**

**11. irudia. !H% mugatonua (Donostia).**



**12. irudia. LH% mugatonua (Zornotza).**

Azentu tonudunak eta muga-tonuak konbinatuz 6 tonu-segida agertu zaizkigu (13. eta 14. irudietan euren estilizazioak erakusten dira):




(1) L+H\*-HL%

(2) L+H\*-M%

(3) L+H\*-!H%

13. irudia. Muga-tonu estilizatuak.



(4) L+H\*-L%

(5) L+H\*-LH%


(6) L\*+H-L%

14. irudia. Muga-tonu estilizatuak.

Tonu-segidak aztertzen baditugu, argi agertzen zaigun lehenbiziko gauza da erabileran dagoen maiztasun-desberdintasuna (3. taula eta 1. grafikoa). L+H\*-HL% da alde handiz gehien erabiltzen dena; horrez gain, berau da lekuko guztiek erabiltzen duten bakarra (4. taula).

Tonu-segidak	Kopurua	Portzentajea
(1) L+H*-HL%	51	70,83
(2) L+H*-M%	8	11,11
(3) L+H*-!H%	7	9,72
(4) L+H*-L%	2	2,78
(5) L+H*-LH%	2	2,78
(6) L+H*-!H%	2	2,78

3. taula. Tonu-segida bakoitzaren kopuru eta portzentaje orokorrak.



1. grafikoa. Tonu-segida bakoitzaren kopuru eta portzentaje orokorrak.

Tonu-segidak	Lekukoak
(1) L+H*-HL%	Atxondo, Azkoitia, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Donostia, Elgoibar, Getxo, Morga, Munitibar, Orio, Zornotza
(2) L+H*-M%	Atxondo, Basauri, Donostia, Getxo, Morga
(3) L+H*-!H%	Bilbo, Getxo, Donostia
(4) L+H*-L%	Elgoibar, Orio
(5) L+H*-LH%	Zornotza
(6) L*+H-L%	Azkoitia


4. taula. Tonu-segida bakoitzaren hedadura lekukoen arabera.

Jarraian tonu-segida bakoitzaren hedadurak aurkeztuko ditugu, lekukoen jatorri linguistikoaren arabera (5. taula), gorago aipatu ditugun (a), (b) eta (c) egoeren arabera (6. taula) eta deien arabera (7. taula).

Tonu-segidak	A1		A2		B	
	Kopurua	Portzentajea	Kopurua	Portzentajea	Kopurua	Portzentajea
(1) L+H*-HL%	20	83,33	16	66,67	15	62,50
(2) L+H*-M%	2	8,33	1	4,17	5	20,83
(3) L+H*-!H%	0	0,00	3	12,50	4	16,67
(4) L+H*-L%	0	0,00	2	8,33	0	0,00
(5) L+H*-LH%	2	8,33	0	0,00	0	0,00
(6) L*+H-L%	0	0,00	2	8,33	0	0,00

5. taula. Tonu-segida bakoitzaren hedadura lekukoen jatorri linguistikoaren arabera.

Taula honen azterketan hiru gauza nabarmen ditzakegu; (1) tonu-segida talde linguistiko guztietan erabiltzen den arren, A1 taldean portzentaje handiagoz erabiltzen da besteetan baino. (2) eta (3) tonu-segidek portzentajerik altuenak A2 eta B taldeetan daukate, gainera (3) tonu-segida ez da A1 taldean agertzen.




2. grafikoa. Tonu-segida bakoitzaren hedadura lekukoen jatorri linguistikoaren arabera.

Tonu-segidak	(a)		(b)		(c)	
	Kopurua	Portzentajea	Kopurua	Portzentajea	Kopurua	Portzentajea
(1) L+H*-HL%	16	66,67	20	83,33	15	62,50
(2) L+H*-M%	1	4,17	2	8,33	5	20,83
(3) L+H*-!H%	5	20,83	0	0,00	2	8,33
(4) L+H*-L%	1	4,17	0	0,00	1	4,17
(5) L+H*-LH%	1	4,17	0	0,00	1	4,17
(6) L*+H-L%	0	0,00	2	8,33	0	0,00

6. taula. Tonu-segida bakoitzaren hedadura aztertu diren egoeren arabera.

Taula honen azterketatik atera ditzakegu ondorio interesgarri batzuk. Batetik (1) tonu-segida (b) egoeran sarriago erabiltzen da. (2) tonu-segida (c) egoeran eta (3) tonu-segida (a) egoeran.




3. grafikoa. Tonu-segida bakoitzaren hedadura aztertu diren egoeren arabera.

Tonu-segidak	1. deia		2. deia	
	Kopurua	Portzentajea	Kopurua	Portzentajea
(1) L+H*-HL%	30	83,33	21	58,33
(2) L+H*-M%	2	5,56	6	16,67
(3) L+H*-!H%	3	8,33	4	11,11
(4) L+H*-L%	0	0,00	2	5,56
(5) L+H*-LH%	0	0,00	2	5,56
(6) L*+H-L%	1	2,78	1	2,78

7. taula. Tonu-segida bakoitzaren hedadura deien arabera.

(1) tonu-segida 1. deian askoz gehiagotan erabiltzen da; bestalde, tonu-segida batzuk 2. deia egiteko baino ez dira erabiltzen.



4. grafikoa. Tonu-segida bakoitzaren hedadura deien arabera.

Orain arte tonu-segiden erabilera-maiztasunak sailkatzeko erabili ditugun irizpide guztiak batzen baditugu, tonu-segida bakoitzaren erabileraren ezaugarriak eta baldintzak aurkez ditzakegu (8. taula).

Tonu-segidak	Ezaugarriak
(1) L+H*-HL%	Tonu-segidarik erabiliena, lekuko guztiak erabiltzen dute, A1 taldekoek gehiagotan erabiltzen dute; egoera guztietan erabiltzen da baina (b) egoeran sarriago; 1. deian gehiagotan erabiltzen da 2.ean baino.
(2) L+H*-M%	B taldeko lekukoek gehiagotan erabiltzen dute, egoera guztietan erabiltzen da baina (c)-n sarriago; 2. deian gehiagotan 1. deian baino.
(3) L+H*-!H%	A2 eta B taldeetako lekukoek gehiagotan, (a) eta (c) egoeretan agertzen da baina (a) egoeran sarriagotan. 2. deian gehiagotan 1. deian baino.
(4) L+H*-L%	A2 taldean baino ez da agertzen, (a) eta (c) egoeretan erabiltzen da; bigarren deian baino ez da erabiltzen.
(5) L+H*-LH%	A1 taldean baino ez da agertzen, (a) eta (c) egoeretan erabiltzen da; bigarren deian baino ez da erabiltzen.
(6) L*+H-L%	A2 taldean baino ez da agertzen, (b) egoeran agertzen da; dei bietan erabiltzen da.

8. taula. Tonu-segida bakoitzaren erabileraren ezaugarriak.

### 3.2. Datuen azterketa fonetikoa

Behin honezkero, azterketa fonologikoa egin ondoren, aurreko azpiataleko tauletan erakutsi den moduan, lekuko batzuek tonu-segida bera erabiltzen dute beti: Barakaldo eta Munitibar. Beste batzuek, lehen deian, egoera guztietan ez dute tonu-segida bat baino erabiltzen: Atxondo, Elgoibar, Morga, Orio eta Zornotza. Azkenik, lehen eta bigarren deiaren artean bereizketa fonologikoa egiten den arren, kasu batzuetan ez dugu halakorik topatu. Orduan zilegi da galdetzea ea

bereizketarik egiten den ala ez. Azpiatal honetan, galdera horri erantzuten ahalegintzeko, datuen azterketa fonetikoak egingo dugu.

Azterketa fonetikoetan eskuarki aztertzen diren tasun akustikoak hiru izaten dira;  $f_0a$ , iraupena eta energia. Hiru hauek aztertuta, honako lau ezaugarri hauek aukeratu ditugu:  $f_0$ ren maximoa ( $\max f_0$ ),  $f_0$ ren batez bestekoa ( $Xf_0$ ), energiaren batez bestekoa ( $Xdb$ ) eta luzera (Irau). Esaldi osoaren balioak dira aurkeztuko ditugunak.

$L+H^*HL\%$  tonu-segida da gehienetan erabiltzen dena, eta hortaz, konparatzeko gure corpusean aukera gehien ematen diguna. 9. taulan erakusten dira lortu ditugun izariko batez bestekoak, egoera bakoitzean lehen eta bigarren deietan.

Egoera	Deia	$\max f_0$	$Xf_0$	$Xdb$	Irau
(a)	1	276	212	73,84	432
	2	299	257	81,4	471
(b)	1	243	210	71,54	376
	2	254	214	74,46	395
(c)	1	254	225	75,66	422
	2	261	233	77,43	458

9. taula. Izari akustiko bakoitzaren batez bestekoak.

Lehen deiarren gaineko datuak aztertzen baditugu, (b) egoerak baliorik baxuenak dauzka izari guztietan. Haatik, (a) egoerak altuenak erakusten ditu  $\max f_0$  izarian eta iraupenean, eta (c) egoerak  $Xf_0$  eta  $Xdb$  izarietan. Bigarren deian, ostera, (a) egoerak izari guztietan baliorik altuenak dauzka, (b)-k baxuenak eta (c)-k ertainak.


Deien arteko erkaketa egiten badugu, bigarren deian balio altuagoak agertzen dira izari guztietan lehen deian baino.

Izari bakoitzak bereizketari zenbateraino eragiten dion jakiteko, aldakuntza-koefizienteak kalkulatu ditugu. Koefiziente hauek aldakuntza-portzentajeak ematen dizkigute izariko (10. taula).

Egoera	Deia	$\max f_0$	$Xf_0$	Iraupena	$Xdb$
(a)	1	9,92	7,00	12,73	3,76
	2	15,20	10,21	17,10	1,82
(b)	1	8,41	9,33	10,05	5,69
	2	9,24	10,48	12,63	4,99
(c)	1	14,25	8,80	13,69	4,28
	2	7,66	6,66	13,04	3,13

10. taula. Izari akustiko bakoitzaren aldakuntza-koefizienteak.

Izarien aldakuntza-koefizienteekin ranking orokorra osatzen badugu, lehen lekuan iraupena agertzen zaigu (14,88), gero maxf0 (12,5), segituan Xf0 (10,81) eta, azkenik, koefizienterik txikienarekin, energia (5,22). 5. grafikoan, egoera bakoitzaren dispersio-esparrua agertzen da, gehien aldatzen diren izarien arabera, eta era berean, deia lehena edo bigarrena den kontuan hartuta. Bertan ikusten denez, egoerek euren esparru propioa erakusten dute, gainerakoena inbaditu barik.



**5. grafikoa. Egoera eta dei bakoitzaren dispersioa gehien aldatzen diren izari akustikoen arabera.**

Beraz, datu hauek ikusita, esan dezakegu ezen, bereizketa fonologikoa egiten ez den kasuetan, tasun akustikoez paper bereizlea hartzen dutela, iraupena eta f0ren maximoa garrantzitsuenak izanik.

#### 4. Ondorioak

Aurreko atalean egin ditugun azterketa fonologikoen eta fonetikoaren emaitzak laburbilduta, ondorio batzuk atera ditzakegu. Lehen-lehenik, gainerako hizkuntzetan bezala, euskaraz ere bokatiboek egitura prosodiko bereziarekin agertzen dira; beraz, aparteko intonazio-unitatetzat jo ditzakegu.

Fonologikoki jarraian zehazten diren tonu-segidak erabiltzen dira; tonu-segidok ez dira maiztasun berberarekin agertzen, lehena lekuko guztiek erabiltzen dutena da, hots, arruntena.

- (1) L+H\*-HL%
- (2) L+H\*-M%
- (3) L+H\*-!H%
- (4) L+H\*-L%
- (5) L+H\*-LH%
- (6) L\*+H-L%



Gainerako tonu-segiden erabileretan, lekukoen ama-hizkuntzaren araberako hedadura desberdinen zantzuak ikusi ditugu, hala (2) eta (3) tonu-segidak B taldeko lekukoen artean sarriago erabiltzen dira besteetan baino. (4) eta (5) tonu-segidak A2 taldeko lekukoek baino ez dituzte erabiltzen; era berean, (5) tonu-segida A1 taldekoen artean baino ez da agertzen.

Era berean, egoera komunikatibo batzuetan tonu-segida batzuk gehiagotan erabiltzen dira beste batzuk baino. Horrela, (1) eta (6) tonu-segidak (b) egoeran agertzen dira gehiagotan, eta (3), (4) eta (5) tonu-segidak gehiagotan erabiltzen dira (a) eta (c) egoeretan.

Deia lehena edo bigarrena izateak ere badu bere garrantzia tonu-segiden erabilera-maiztasunetan. Hala, (1) tonu-segida gehiagotan agertzen da lehen deian, (2) eta (3) bigarren deian gehiagotan erabiltzen dira, eta (4) eta (5) bigarren deian baino ez dira agertzen.

Hizkuntza erromanikoen gainean egin diren azterketetan, ikusi dugun bezala, euskaraz erabiltzen diren tonu-segida berberak erabiltzen dira, ñabardurak ñabardura; hala ere, hizkuntza horietan tonu-segidarik arruntena  $L+H^* M\%$  den arren, euskaraz  $L+H^* HL\%$  da (Estebas eta Prieto, 2008; Prieto eta Roseano, 2010). Hemendik atera dezakegun ondorio garrantzitsu bat zera izan daiteke, hots, hizkuntzen, barietateen eta lekukoen arteko aldeak ez datoz hainbeste sakoneko tonu-segida fonologikoak desberdinak izatetik, baizik eta euren erabilera-portzentajeak desberdinak izatetik. Bestalde, eta portzentajeaz gain, aztertu eta erkatu beharko genituzke hizkuntzarik hizkuntza tonu-segida bakoitzaren ñabardurak bat ote datozen.

Lekukoen erabileretan bereizketa fonologikorik egiten ez den kasuetan, tasun akustikoen paper bereizlea hartzen dutela ondorioztatu dugu azterketa fonetikoaren bidez. Horrelakoetan tasunik garrantzitsuenak iraupena eta oinarrizko maiztasunaren maximoa dira.

Azkenik, uste dugu ezen, ikerketa hauek interes handia eduki dezaketela hizkuntzaren deskripzioaren eta barietatearen ikuspuntuetatik ez eze, ikaskuntza-irakaskuntzarenetik ere. Batik bat, gaitasun prosodikoa kontuan hartzen ez den alorra baita, nahiz eta ahozkotasunean, artikulazio honetan esan bezala, gaitasunik garrantzitsuenetakoa izan. Horretarako, erlazio posible guztiak aztertu behar direlakoan gaude, hau da, sarreran aipatu ditugun faktoreen konbinazio posibleek eragineko aukera guztiak kontuan hartu beharko lirateke.

Bide beretik, izen bereziekin egin dugun bezala, izen arruntetara hedatu beharko litzateke ikerketa, hala nola hartzailearen arreta lortzeko erabiltzen diren beste baliabide batzuen erabileretara ere.

## Bibliografia

- Agirre, J. M. (1991): *Euskal Gramatika Deskriptiboa*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- Asuaje, R. A.; Blondet, M. A.; Mora, E. eta Rojas E. (2005): "Codificación Prosódica de la Información Incidental en el Discurso Espontáneo. Un estudio de caso", *Fermentum*, **15-44**, 449-460 [URL: <http://redalyc.uaemex.mx/pdf/705/70504410.pdf>].
- Boersma, P. eta Weenink, D. (2009), *Praat: doing phonetics by computer*, *Software package* [URL <http://www.fon.hum.uva.nl/praat/>].
- Brown, P. eta Levinson, S. (1978): "Politeness", in E. Goody (ed.), *Questions and Politeness*, C.U.P., Cambridge, 56-289.
- eta ————— (1987): *Politeness. Some universals in language usage*, C.U.P., Cambridge.
- Cabré, T. eta Vanrell, M. M. (2008): "Accent i entonació en els vocatius de l'alguerès", *Actes del XXXV Col·loqui de la Societat d'Onomàstica*, Italy, L'Alguer, maiatzaren 10-11.
- Cuenca, M. J. (2004): "El receptor en el text: el vocatiu", *Estudis romànics*, **26**, 39-64.
- Dorta, J. (ar.) (2007): *La prosodia en el Àmbit Lingüístic Romànic*, La Pàgina, Santa Cruz Tenerifea.
- Escandell, M. V. (1993): *Introducción a la Pragmática*, Anthopos, Bartzelona.
- Estebas, E. eta Prieto, P. (2008): "La anotación prosódica del español: Una revisión del SpTOBI", *EFE-XVII*, 263-283.
- Frota, S. (2003): "The phonological status of initial peaks in European Portuguese", *Catalan Journal of Linguistics*, **2**, 133-152.
- Fujisaki, H. (2004): "Information, Prosody, and Modeling", *Proceedings of Speech Prosody*, Nara, Japonia.
- Gaminde, I. (2007): *Bizkaian Zehar: Euskararen Ikuspegi Orokorra*, Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- , (2010): *Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gaztelaniaz*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo.
- Garay, U. eta Etxebarria, A. (2010): "Irakasleen komunikazio-gaintasuna: hausnarketarako gaia", *Uztaro*, **73**, 39-48.
- Garay, U. (2011): *Ahozkotasunaren ikaskuntza-irakaskuntza DBHko ikasle etorkinetan. Deskripzioa, esperimantazioa eta emaitzen azterketa*, doktorego-tesia.
- Gussenhoven, C. (2005): "Transcription of Dutch Intonation", in Sun-Ah Jun (ed.), *Prosodic Typology: The Phonology of Intonation and Phrasing*, Oxford University Press.
- , (2007): "Intonation", in Paul de Lacy (arg.), *The Cambridge Handbook of Phonology*, Cambridge University Press, 253-280.
- Hualde, J. I. (2003): "El modelo métrico y autosegmental", in P. Prieto (koor.), *Teorías de la Entonación*, Ariel Lingüística, Bartzelona.
- Hualde, J. I. eta Bilbao, X. (1992): "A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo", *ASJU*, **XXVI-1**.
- Hualde, J. I. eta Ortiz de Urbina, J. (2003): *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin.
- Jun, Sun-Ah (2005): *Prosodic Typology: The Phonology of Intonation and Phrasing*, Oxford University Press.
- Jun, S. A. eta Elordieta, G. (1997): "Intonational Structure of Lekeitio Basque", in A. Botinis, G. Kouroupetroglou eta G. Carayannis (arg.), *Intonation: Theory, Models and Applications*, *Proceedings of an ESCA Workshop*, ESCA, Atenas, 193-196.
- Pierrehumbert, J. (1980): *The phonetics and phonology of English intonation*, doktorego-tesia, Massachusetts Institute of Technology.
- Prieto, P. (2006): "El model mètric i autosegmental (AM) aplicat al català", ppt aurkezpena, <<http://seneca.uab.es/pilarprieto/curriculum.html#Publications>>.

- Prieto, P. eta Roseano, P. (ed.) (2010): *Transcription of Intonation of the Spanish Language*, Lincom Europa, München.
- DRAE: <<http://www.rae.es/rae.html>>.
- Rattazzi, A. (2009): "Consideraciones diagnósticas en relación al Síndrome de Asperger", <<http://www.neurologiacognitiva.org/material/1240352230S.pdf>>.
- Sichel-Bazin, R.; Borràs-Comes, J.; de-la-Mota, C. eta Prieto, P. (2010): "L'entonació dels vocatius: una primera mirada a l'espai romànic", <[http://prosodia.upf.edu/activitats/cattobi2/home/cattobi2\\_workshop\\_programa.pdf](http://prosodia.upf.edu/activitats/cattobi2/home/cattobi2_workshop_programa.pdf)>.
- Sosa, J. M. (1999): *La Entonación del Español*, Càtedra, Madril.
- Toledo, G. (2007): "Fraseo en español peninsular y modelo autosegmental y métrico", *Estud. filol.*, **42**, 227-243.
- Txillardegi (1978): *Euskal Gramatika*, Ediciones Vascas, Bilbo.
- Wichmann, A. (2002): "Attitudinal Intonation and the Inferential Process", in B. Bel eta I. Marlien (arg.), *Proceedings of the Speech Prosody Conference*, 11-16.

